

BIZIKLIK!

Bezeroarekiko harremanak

Nola erakarriko ditugu bezero berriak, eta nola mantendu eta hazi araziko ditugu bezero horiek?

- Zerbitzu automatizatua izango dugu, webgunearen bitartez produktuak eskatu ditzaten. Gainera, pertsonalizatutako arreta izango dugu telefonoz bezeroen zalantzak argitzeko. Horrela, bezeroek erosotasun handiz erosteko ahalmena izango dute.
- Diseinu berriak eta hobekuntzak kaleratuko ditugu noizean behin. Horri esker, gure produktuen hobekuntzak ikusita, esperientzia ona izan duten bezero ohiak mantenduko ditugu.
- Publizitatearen bidez gure enpresa bezero berriei helaraziko diegu. *Marketing* enpresa batekin jarriko gara harremanetan gure publizitatea kudeatzeko.
- Kirol ekitaldietan parte hartuko dugu. Horrela, jendeak ikusiko du gure enpresak kiroltasuna eta ongizatea bermatzen duela, bezeroak mantenduz eta berriak erakarrituz.
- Sare sozialetan (*Facebook, Instagram, Twitter...*) kontu aktiboak izango ditugu. Bezeroen proposamenak entzuteko eta enpresaren inguruan dituzten zalantzak argitzeko zenbait ekintza egingo ditugu, batez ere *Instagramen, stories* atalean bezeroarekin komunikatzeko tresna ugari baititugu. Adibidez, inkestak egiteko aukera dago, baita galdetegiak egiteko ere. Horrez gain, hilabete bakoitzean “galderen txanda” egingo dugu. Bertan, galderak egiteko gune bat eskainiko diegu bezeroei. Galdetzen digutena irakurriko dugu, eta erantzun guztiak anonimoki argitaratuko ditugu sare sozialetan, gure jarraitzaile guztiek informazio horren berri izan dezaten.

